

HEMENDIK ZERURA

1980, uztailak 7

Sophia maitea,

Berria eman didate. Ez dakit zer sentitzen dudan, hil egin behar naizela ematen du. Shock batean sartu naiz eta ez dakit nola irten. Nire pentsamenduak bueltaka dabiltzate, ezin dut sinetsi gertatutakoa, ez nuen inoiz lehenago hau sentitu. Azalezina da. Ez zaizkit ezta malkoak irteten. Bihotza minduta dut. Ahotik irten behar zaidala ematen du.

Zure begi marroiak eta ile luzea gogoratzen dut, zure irribarrea, zure txisteak, beti esaten zenituen esaldiak, zure laztanak, zurekin pasatako momentuak, ezagutu ginen arratsalde hori, zure usaina, zure ahotsa, zure barrearen soinua, zure maitatzeko modua...

Ezin dut honekin bizi, ezin izango naizela berriro maitemindu ematen du. Gurea oso erreala izan zen, eta ezin dut gureari amaiera bat eman. Galdetzen badidate bikoterik al dudan zurekin nagoela esango dut beti, beste bizitza baten batera egongo garela badakitelako. Ez dut inoiz zurekin sentitu dudana inor gehiagorekin sentitu. Zurekin egoteko ez banago, norekin? Ezingo nuen hau beste inorekin sentitu, orduan hori ez litzateke maitasuna izango. Zu eta ni batera egoteko jaio gara eta heriotzan batera egoteko ere hilko naiz.

Ezin dut zurekin hitz egin, horregatik hau idazten dut, zurekin hitz egiten egongo balitz bezala sentitzeko, maite zaitut.

Munduko maitasunik handienarekin,

Jack.

Atzo Sophia hil zen. Heriotza surrealista izan zen. Nola izan daiteke inoiz ikusi dudan emakumerik politena, 17 urterekin hil izana.

Sophia Londreseko Brixton auzotik zabiltzan gabeen bakarrik, dakigun bezala ez da auzorik seguruena. Bertako etxarte batean sartu zen etxeko zaborra botatzeko eta ez zen hortik irten. Hurrengo egunean andre bat handik pasatu eta bertan ikusi zuen irudi tragiko hori, erabat odolustuta eta etxarte erdian botata.

Gaur arratsaldean beilatokira joan behar naiz, baina indarrik ez dudala sentitzen dut.

1980, uztailak 10

Laztana,

Gertatutakoa gainditu gabe jarraitzen dut, gurasoek etengabe galdetzen didate zer gertatzen zaidan, zergatik ez dudan udaz gozatzen, gainditu egin behar dudala. Nire bihotza hilda dago. Huts eta min izugarria sentitzen dut, arnasarik gabe geratzen naiz, eta zure izena entzuten dudan edo elkarriketak irakurtzen ditudan bakoitzean bihotzean ziztadak ematen didate.

Gaur goizean ni bakarrik joan naiz buelta bat ematera, zu gabe. Kale guztiek gure oroitzapenak gogorarazten dizkidate. Neure burua mailukatzen dut, zurekin egon izan banintz gertatutakoa saihesten saiatuko nuela pentsatuz, baina ez nuen hori egiteko aukerarik izan, nahiago izango nuen hor bertan zurekin hil izana. Orain badirudi mundu guztiak bizitzaz gozatzen duela, eta nik behatu baino ez dut egiten, ikusleak zineman bezala.

Lo egitera joan behar naiz, nire gurasoak deika dabilzate.

Betirako gogoratu eta maiteko zaitut,

Jack.

Ez dut ahazten apirilaren 5a, duela 5 urte 12 urterekin elkar ezagutu genuen eguna. Ez dut ahazten, ezta ere, bakarrik geratutako lehen aldi eta egun hori, lehen musu hori, ilusio hori, gure begiradetako desira hori, ikusten zintudan bakoitzean sentitzen nuen erakarpen hori... Zutaz gustuko nuen dena.

1978ko egun hartan, sentitzen nuen guztia adierazi nizun ostiral arratsalde hartan. Bournemouthera trenez joan ginen biok bakarrik, banku batean eseri ginen zeruertzeroa begira, kukurutxoazko izozki bana, zurea banillazkoa zen eta nirea limoizkoa, zuk usain benetan erakargarria zeneukan, zoratzen ninduen, eta batzuetan, bakarrik nengoenean, usaintzen jarraitzen nuen, burutik jota negozi ematen zuen, giroak ur gaziaren usaina zuen, eta orduan adierazi nizun zuek sentitzen nuen guztia, adierazi nizun irribarre horrek eta begirada horrek zoriona, distira eta ilusioa baino askoz gehiago transmititzen zidatela. Aitortu nizun asko gustatzen zitzaizkizula zure lepoko orina. Zuk niri begiratu eta sentitzen zenuen guztia adierazten hasi zinen, nik egin nuen bezala. Itsasgora egunetan baretzen ninduen ahots goxo horrekin esan zenuen. Eta orduan hasi zen gure historia. Nire bizitzako etaparik onena.

Egun batean lotara joan eta sekula gehiago esnatu ez nintzen arte, nire burua nire oroitzapenik onenak berpiztu zituen nire oroimenaren bizitzako azken 7 minutuetan, eta zu hor zeunden. Hala izan zen, maitasunez, tristuraz eta etsipenez hil nintzen. Indartsua nintzela uste nuen, baina hau gehiegi izan zen, bizitza honekin pasa zen. Sekula ez dut beste inor hainbeste maite izan, eta egia esaten nizun maite zintudala esaten nuen bakoitzean. Espero dut orain bai, zeruak berriro elkartuko gaituela, eta bizi ezin izan genuen bizitzarekin jarraitu ahal izango dugula.